

Bizikasi ekimena: bizikidetza gehiago eskola-jazarpen gutxiago

Uzt. 07 - Uzt. 09 2021

Kod. H12-21

Mod.:

Online zuzenean Aurrez aurrekoa

Edizioa

2021

Jarduera mota

Uda Ikastaroa

Data

Uzt. 07 - Uzt. 09 2021

Kokalekua

Elbira Zipitria zentroa

Hizkuntzak

Euskara

Balio akademikoa

30 ordu

Antolakuntza Batzordea



Azalpena

Ikastaroa aurrez aurre ospatuko da eta online zuzenean parte hartzeko aukera ere egongo da ZOOM bidez. Matrikula prozesuan nola parte hartuko duzun aukeratu: aurrez-aurre edota online zuzenean.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko baliozkotzea dauka (2168170017) unibertsitateaz kanpoko irakasleentzat. Baita ere Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Sailak irakasleen etengabeko prestakuntza gisa ere baliozkotzea eskatu da.

Johan Galtung soziologoaren esanetan, indarkeria sortzen da pertsona batek ezin dituen bere gaitasunak ahalik eta gehien garatu, faktore mugatzaileak edo eragozleak dituelako. Eskola-eremuan, ikaskideen arteko indarkeriak asko zaildu eta higatzen du gaitasun horien garapena, kolokan jartzen baitu ikasleok erabat garatzeko eta eskola-inguruneari atxikitzeko behar duten segurtasuna.

Bizikasi ekimenak eskola-jazarpenari dagokionean Hezkuntza Komunitatean ikuskera bateratzailea izateko ekarpena egin nahi du. Horretarako, hizkuntza bateratua eta ezagutza partekatua eraiki nahi du eskola-jazarpenaren inguruan, jazarpen egoerei aurre egiteko tresnak eta egiteko erak proposatu, esku-hartze koordinatuak sustatu, eta hezkuntza eragileengan eragin positiboa izatea nahi du, besteak beste. Hau da, erantzun orokorra emanez batu nahi ditu elkarbizitza positiboa garatzeko eta eskola-jazarpenerotik ezabatu nahian euskal ikastetxeetan urteetan zehar abiarazitako hainbat proiektu.

Uda Ikastaro honen bitartez ezagutarazi nahi dira: Bizikasi ekimenaren ezaugarri nagusiak, eskola jazarpenaren eta ziberjazarpenaren kontzeptualizazioan diharduten aldagai esanguratsuenak, jazarpenera prebenitzeko bizikidetza positiborako hautu eta probentzio neurriak, eskola-jazarpen kasuen ebazpenean kontuan izan beharreko alderdiak, eta eredu errestituatzailean eta ikuspegi ekologiko-sistemikoan oinarritutako esku-hartze zuzenerako tresna eta estrategia egokiak.

Helburuak

Bizikasi ekimenaren ezaugarri nagusiak ezagutzea.

Eskola jazarpenaren eta ziberjazarpenaren gako kontzeptualak ezagutzea.

Arrisku aldagaiak eta begirune berezia behar duten gizataldeak identifikatzea.

Eskola (ziber) jazarpen kasuak prebenitzeko tresna eta antolaketa neurrien proposamenak egitea.

Eskola (ziber) jazarpen kasuak ikuskera sistemiko-ekologiko eredutik abiatuta ebazteko tresnak eta aldagaiak ezagutaraztea.

EAEko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetan gertatzen diren eskola jazarpen egoeretan jarduteko protokoloa (2019) lantzea.

(Ziber)bizikidetza positiboaren alde eta (ziber) jazarpenaren aurkako lehenetsitako neurriak aurkeztea.

Ikastetxeetako esperientziak ezagutzea.

Kasu praktikoen lanketan aritzea.

Bizikasigunea ezagutzera ematea.

Programa

2021-07-07

09:00 - 09:10	Jardueraren zuzendaritzaren aurkezpena Aitor Albizu Intxausti Berritzegune Nagusia - Bizikasi ekimena arduraduna
09:10 - 10:30	“Bizikidetza eta Bizikasi. Zer da (ziber) bizikidetza? Eta indarkeria? Eskola-(ziber) jazarpena indarkeria mota bat.” Aitor Albizu Intxausti Berritzegune Nagusia - Bizikasi ekimena arduraduna
10:30 - 10:45	Atsedena
10:45 - 12:00	“Zer da eskola (ziber) jazarpena? Nortzuk ari dira/gara dinamika horretan? Usteak, mitoak...eta ikerketek diotena. Ideiak partekatzen.” Beatriz Ugarte Maiztegi Berritzegune Nagusia - Hezkidetzako arduraduna
12:00 - 12:15	Atsedena
12:15 - 13:30	“Eskola jazarpena eta gu. Nola jokatzten dugu? Konexio eta deskonexio moralak.” Aitor Albizu Intxausti Berritzegune Nagusia - Bizikasi ekimena arduraduna
13:30 - 14:00	Sintesia

2021-07-08

09:00 - 10:15	“Arrisku eta babes aldagiak. Nola aurre hartu eskola-jazarpenari? Esku-hartze mailak eta jazarpena detektatzeko tresnak.” Aitor Albizu Intxausti Berritzegune Nagusia - Bizikasi ekimena arduraduna Berritzegune Nagusian
10:15 - 10:30	Atsedena
10:30 - 11:45	“Esku-hartze mailak eta jazarpena ebazteko tresnak.” Maria Victoria Fernandez Roldan Irungo G02 Berritzeguneko zuzendaria
11:45 - 12:15	Atsedena
12:15 - 13:30	“Biktimekin, erasotzaileekin, ikusleekin eta familiekin lanean” Aitor Albizu Intxausti
13:30 - 14:00	Sintesia

2021-07-09

09:00 - 10:15	“EAEko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetan gertatzen diren eskola jazarpen egoeretan jarduteko protokoloalen lanketa “ Aitor Albizu Intxausti Berritzegune Nagusia - Bizikasi ekimena arduraduna Berritzegune Nagusian
10:15 - 10:30	Atsedena
10:30 - 11:45	“Kasu praktikoen lanketa“ Aitor Albizu Intxausti Berritzegune Nagusia - Bizikasi ekimena arduraduna Berritzegune Nagusian
11:45 - 12:15	Atsedena
12:15 - 13:30	Mahai ingurua: “Ikastetxeetako esperientziak“ Iñigo Ramos Sarriugarte Otxandioko eskola - Zuzendaria Ane Lizeaga Zabalegi Toki Alai ikastetxea Lur Olabarri Etxebarria Otxandioko eskola - Aholkularia
13:30 - 14:00	Sintesia

Zuzendaritza



Aitor Albizu Intxausti

Eusko Jaurlaritza

Maisua Psikopedagogian lizentziatua. Esku-hartze psikopedagogikoko espezialitaea. Kulturartekotasun Hezkuntzan Masterra. Ingurumen Hezkuntzako Unibertsitate Espezialista Titulua. Sukarrietako Eskola Saiakuntzarako Zentroko irakasle 1997-2005. Sukarrietako Eskola Saiakuntzarako Zentroko zuzendaria 2005-2009. Durangoko Berritzeguneko aholkularia eta Bizikidetza arduraduna 2011-2017. Bizikasi Ekimeneko arduraduna Berritzegune Nagusian 2017-18 ikasturtetik gaur arte. Sare Publikoko ikastetxeetako BAT (Bullyngaren Aurkako Taldeak) taldeei zuzendutako prestakuntzaren koordinatzailea.

Irakasleak



Maria Victoria Fernandez Roldan

Berritzegune Nagusia

Irungo Berritzeguneko aholkularia da 2001-2002 ikasturteaz geroztik, bizikidetzari eta genero-berdintasunari (hezkidetzaz) buruzko gaietarako erreferentzia eta zentroko zuzendaria 2019-2020 ikasturtean. Mintegi batzuen ardura dauka, elkarbizitza-hezkidetzarena, beste batzuen artean. Ikastetxe batzuen erreferentzia da eta gainerako ikastetxei ere aholkuak ematen dizkie bizikidetzaren eta, oro har, hezkidetzaren kudeaketari dagokionez, bai eta bizikidetzaz eta hezkidetzaz planak egiteari, abian jartzeari, berrikusteari eta ebaluatzeari dagokionez ere. Bestalde, irakasleei bizikidetzari eta hezkidetzari buruzko prestakuntza ematen die ikastetxeetan, eta udako ikastaro batzuk eman izan ditu EHUn (Bizikasi, eskola-jazarpena eta ikaskuntza kooperatiboa). Latinoamerikako herrialde batzuekiko lankidetzaz proiektuetan ere parte hartu du, Eskola Antolakuntzari, Genero Berdintasunari eta Bizikidetzari buruzko irakaskuntza-prestakuntzan.



Ane Lizeaga Zabalegi

- Elektronika ingeniaria, 11 urtez hezkuntzan lanean. - DBHko irakasle, kalitateko eta Golden 5eko koordinatzaile. - IKT arduraduna.



Lur Olabarri Etxebarria



Iñigo Ramos Sarriugarte

Eusko Jaurlaritz, Zuzendaria



Beatriz Ugarte Maiztegi

Berritzegunea

Prestakuntza akademikoa Filosofia eta Hezkuntza-Zientzietan eta Filosofia-espezialitatean lizentziatua (Deustuko Unibertsitatea), Emakume eta gizonen berdintasunaren gaineko masterduna (UPV/EHU) Jardun profesionala Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza-, Unibertsitatea- eta Ikerketa-Saileko laguntza-zerbitzuetan (Berritzeguneak) 1996tik Hezkidetzaren eta elkarbizitzaren gaineko prestakuntza- eta aholkularitza-lana. Hezkidetzan Esku Hartzen UPVko ikastaro osagarrian irakaslea. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza-, Unibertsitatea- eta Ikerketa-Saileko Elkarbizitzan, Bakean eta Giza Eskubideetan hezteko programaren lurraldeen arteko arduraduna Berritzegune Nagusian (2007-2009) UPV/EHUko Emakume eta gizonen berdintasunaren gaineko masterrean Hezkuntza moduluan irakaslea Hanibat hitzaldi, ikastaro eta argitalpen. Horien artean, beste kide batzuekin hauek adibide Hezkidetz-Gida. Bilgune Feminista. ISBN 978-84-612-1365-8 Hezkidetz-Gida: Emakume eta gizo

Matrikula prezioak

AURREZ AURRE	2021-06-01 ARTE	2021-07-07 ARTE
Prest_gara H12-21	0 EUR	-
OROKORRA	-	105,00 EUR
MATRIKULA MURRIZTUA OROKORRA	-	89,00 EUR
MATRIKULA EXENTZIOA	-	74,00 EUR
IRAKASTEKO IKASTEN MURRIZPENA	-	89,00 EUR
Euskaltegi edo autoikaskuntzarako zentro homologatuko kide	-	89,00 EUR
ELKAR txarteldunak	-	89,00 EUR
Gipuzkoa / Bizkaia eta Arabako PSIKOLOGOEN ELKARGO OFIZIALA	-	89,00 EUR

ONLINE ZUZENEAN	2021-06-01 ARTE	2021-07-07 ARTE
OROKORRA	-	105,00 EUR
MATRIKULA MURRIZTUA OROKORRA	-	89,00 EUR
MATRIKULA EXENTZIOA	-	74,00 EUR
IRAKASTEKO IKASTEN MURRIZPENA	-	89,00 EUR
Euskaltegi edo autoikaskuntzarako zentro homologatuko kide	-	89,00 EUR
ELKAR txarteldunak	-	89,00 EUR
Gipuzkoa / Bizkaia eta Arabako PSIKOLOGOEN ELKARGO OFIZIALA	-	89,00 EUR

Kokalekua

Elbira Zipitria zentroa

Ondarreta pasalekua, 18. 20018 Donostia

Gipuzkoa